MARTA

Lanean euskaldundua

"Enpresaren eta lantaldearen jarrera, babesa eta hizkuntza politika ezinbestekoa (izan) dira (nire) euskalduntze-prozesuan

42 URTE, BILBO

LANA MARKINAN

IBILBIDE PROFESIONALA

- Unibertsitate ikasketak ditu.
- Ia ibilbide profesional osoa kooperatiba batean eman du eta orain ardura postua dauka.
- Enpresan bertan ikasi du euskaraz.
- Lanaren %85etik gora (formala eta informala) euskaraz egiten du eta arnasgune bateko kide da.
- Jende askoko foroetan ere euskaraz egiten du.
- Lanetik kanpo ere euskaraz bizitzen saiatzen da, seme-alabekin batez ere.

MOTIBAZIOAK

- Bere lan-ingurune euskaldunean "ondo" integratu nahi du, hizkuntza oztopo izan gabe. Errespetuagatik eta betetzen duen karguak izan behar duen eredugarritasunetik.
- Lanetik kanpo ere euskaraz bizi nahi du.

KEZKAK

- Hizkuntza Politika zurrunaren ondorioz arazoak daude profil zehatzeko pertsonak kontratatzeko eta, bestalde, presioa sortzen du ikasleen artean, eta hori ez da motibatzailea.
- Enpresen euskalduntze prozesuan atzera egiteko arriskua, egon, badagoela uste du.

NARRATIBAK

- **Talentua** erakartzerakoan eta mantentzerakoan hizkuntza politika txertatu behar da eta, horrek, motibatzailea izan behar du ez mugatzailea.
- Pertsonen arteko **harremanetan** euskarak asko hurbiltzen du.
- Langileen euskalduntze prozesuan gakoak dira **enpresaren hizkuntza politika** eta lankideen jarrera eta babesa.
- Enpresen egitekoa ere bada **kultura sustatzea**.
- Enpresetako **ekosistema linguistikoak** euskaldundu behar dira.
- Euskara komunikazio tresna bat baino gehiago da: gure **identitatearen** eta **nortasunaren** intsignia.